

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Foruzaingoak Internet bidez ordainketak egitean Wi-Fi sare publikoak edo irekiak ez erabiltzeko gomendioa egin du

*Zenbait gomendio eman ditu linean erosketak egiten direnerako, esate baterako, sarean aurki daitezkeen maukei bakarrik ez begiratzeko.*

Viernes, 27 de diciembre de 2013

Foruzaingoak zenbait gomendio eman ditu herritarrek Internet bidez erosketak modu seguru eta fidagarrian egin ditzaten, adibidez, sarean aurki daitezkeen maukei bakarrik ez begiratzeko, iruzurra izan baitaitezke.

Ordainketak egin edo datu pertsonalak idazteko orduan, Foruzaingoak Wi-Fi sare publiko edo irekiak ez erabiltzea aholkatu du, horietatik pasatzen den informazioa ezkutuko programek bidean atzeman baitezaket.


Halaber, ordainketak egiteko, ahal den neurrian, Foruzaingoak kreditu-txartel birtualak edo enpresa bitartekariak bezalakoak erabiltzeko eskatu du, horiek seguruak direlako. Era berean, ez dira fidatzekoak alde aurretiko ordainketak zein nazioarteko presazko zerbitzuen enprekin transferentzia bidez bakarrik egin daitezkeenak.

Foruzaingoak gogorarazi du lineako bankuekin eragiketak egin ondoren komeni dela saioa amaitzea arakatzaitetik irten edo beste web-orri batera joan aurretik.

### Web-orrien segurtasuna

Foruzaingoako delitu informatikoen taldekoek erabili nahi den web-orriaren helbidea zuzenean arakatzaitelan bertan idaztea ere gomendatzen dute, eta ez mezu elektronikoetan edo itxuran ofizialak diren web-orrietan agertzen diren esteketan klik eginda, horiek ere iruzurra izan daitezkeelako (*phishing-a*). Nolanahi ere, Foruzaingoak sartu berri garen web-orria nahi genuena dela ziurtatzea eskatu du, arakatzaitelan agertzen den helbidea eta leihoaren behealdean agertzen den egoera-barra alderatuta. Adibidez, [www.ventaproductos.es](http://www.ventaproductos.es) idazten badugu, baliteke egoera-barran beste helbide bat agertzea, esate baterako, [www.venaventaproductos.es](http://www.venaventaproductos.es).

Komeni da, baita ere, webgunearen helbidean arreta jartzea. Orriaren protokoloa s letraz amaitzen bada, hau da, <https> eta ez <http>, horrek esan nahi du webgune horren bidez bidaltzen den informazioa



Foruzaina.

zifratuta dagoela. Gainera, haren ondoan kandadu bat agertzen bada, web-orri hori aitortutako erakunde batek egiaztaturikoa da eta, beraz, benetakoa da.

Foruzaingoak posta elektronikoz jasotzen diren edo web-orrietan aurki daitezkeen Gabonetako postalekin ere kontuz ibiltzeko eskatu du. Horietan klik egitean, ordenagailua ezkutuko programa gaiztoekin infekta daiteke edo infektatutako web-orrietara birbidera gaitzakete. Horrez gain, agenteek ordenagailuko sistema eragilea, Interneteko arakatzailak eta antibirusa eguneratuta izateko ere gomendatu dute.

### **Hausnartu erosketak eta eskatu informazioa**

Foruzaingoak herritarrei gomendatu die Internet bidez produktuen bat erosi aurretik erosketari buruzko hausnarketa egitea eta arinegi ez jokatzeari.

Produktua saltzen duen pertsonaren edo enpresaren inguruko zalantzarik izanez gero, Foruzaingoak horiei buruzko informazioa biltzea aholkatu du, Interneteko bilatzaileak baliatuta edo linean erosi ohi duten ezagunei edo kontsumitzaileen elkarteei galdetuta.

Internetetik erostean zentzuz jokatzeko eta ohiko saltokietan ondasunak edo zerbitzuak eskuratzean egiten duten gauza bera egiteko eskatu die: prezioa begiratu, bermea, baldintzak eta kalitatea egiaztatu, beste saltzaile batzuekin alderatu etab.

Amaitzeko, Foruzaingoak gogorarazi du Gabonetan eskari handiena duten produktuak liburuak, gailu elektronikoak eta lurrinak izaten direla, hau da, iruzurgileek kontsumitzaileak engainatzeko nahiago izaten dituzten gauzak.